

## **627 mendik kudeaketa jasangarriaren zigilua dute**

Gipuzkoan kudeaketa planak nahiko zabaldua daude. Badu bere zergatia, Jone Maioz Gipuzkoako Baso Elkarteko zuzendari teknikoak azaltzen digunez: "Duela urte batzuk PEFC zigilupean zura ziurtatzearen aldeko apustua egin zen bertan eta ziurtapenerako beharrezkoa da aurretik kudeaketa plan bat izatea". Gipuzkoan, zehazki, 627 mendik dute kudeaketa jasangarriaren PEFC ziurtagiria, 25.480 hektareako azalerarekin. Lurraldeko zuhaitz-masa osoaren % 21.

PEFC (Basalde Euskadi) berme-ziurtagiria da munduan gehien ezarrita dagoen baso-ziurtapeneko sistema. Haren helburua basoak arduraz eta era jasangarrian kudeatzen direla bermatzea da eta baita haien funtzio ugari (ekonomiko, sozial eta ingurugirokoak) oraingo eta etorkizuneko belaunaldientzat babestuta daudela. Horretarako, aplikatu beharreko baso-kudeaketako gidalerroak eta jardunbide egokien kodeak bete behar dira.

PEFC ziurtagiriek bermatu egiten diete kontsumitzaileei baso-jatorriko produktuak, hala nola zura, papera, kortxoa, perretxikoak, erretxinak eta esentziak, besteak beste, modu iraunkorrean kudeatutako basoetatik datozenak, ekosistema ugari mantentzen eta biodibertsitate biologikoa sustatzen lagunduz.

**GIPUZKOAKO**  
**BASO ELKARTEA**

---

ASOCIACIÓN DE PROPIETARIOS  
FORESTALES DE GIPUZKOA